


Sarako Itzulia



Distantzia 9 km	Desnibela 430 m	Iraupena 3h00	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR seinaleak (horia)
---------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	--

Donibane Lohizunetik (A63 autobideko 3. jalgebidea), D918 segitu Azkaine eta Senpereko norabidean. Senpereko ingurubidean, Sarako errepidea segitu (D3). Amotz iragan eta gero, Herburuako bidegurutzean, eskuinera segitu (D4). Sarako itzulia egin eskuinetik (Azkaineko norabidea) 800 m-tan, eta ezkerrera igo "Sara - herri barnea" eta "saltegiak" norabidean. Aparkaleku handia eliza baino 100 m aitzinago (karrika nagusia).

GPS datuak: UTM : 615198 - 4796592 Lat/Long : 43.31333/-1.57944

Etxe kilako ondarea, historia eta paisaiak dira ohoretan itxura anitzeko itzuli honetan, Sara herri oso ederraren inguruko muinoak ezagutzera eramaten gaituelarik. Herriko Etxeko plazatik Santinazio lepoko gainaldeetara, ibilaldiak aurkikuntzak biderkatzen ditu: etxe tradizionalak, galtzada, latsagiak, Napoleon garaiko gotorlekuak, ikuspegi zoragarriak.

1. ZATIA > Saratik Ithiako bidegurutzera


UTM: 615198 - 4796592. Sarako aparkalekutik (70 m), elizarantz aitzinatu, eta, plaza nagusia baino justu lehenago, eskuinera jaitsi karrika itsuan. Beherean, zubitxo bat zeharkatzen duen pareko galtzadan segitu. D4 errepidea zuhurki zeharkatu eta zuzen segitu hilerria zeharkatzen duen galtzada horretan. Etxeak iragan eta, bidegurutzean (kapereta eta gurutzeta), parean den norabide debekatuta-karrikan segitu. Puntan, ezker aldera doan errepidearen bazterretik ibili, behere-eskuineko aldetik (zabaleana). Latsagia zahar baten aitzinean iragan eta errepide bazterretik segitu (zuhurki) bidegurutzeraino.

2. ZATIA > Ithiatik Zuhalmendi lepora

UTM: 615206 - 4797630. Ithiako bidegurutzean (66 m), zuzen segitu arrotz logelen norabidean (karrika itsua). Mundrunaren puntan, ibarxka hezea igotzen duen oihanbidean aitzin segitu. Artzain-bide honek, ardiek sasoi ederrean erabiltzen dutena, hiru bihurtune marrazten ditu patarra ez titzeko. Errepidera iristean (etxea), igotzen segitu ezkererantz. Mundrunaren puntan (ikuspegi), zuzen ibili bide harriztatu zabalean (ezker diren bi bidexka seinalatuei kasurik egin gabe), Zuhalmendi leporaino (euskarri zerriz-haztegia).

3. ZATIA > Gotorlekuen tontor-lerroan

UTM: 614553 - 4798922. Zuhalmendi lepoan (245 m), bidea utzi ezkerrera igotzeko bidexka zuzen batean. Ozeanorako ikuspegiarekin, gailurrera (301 m) eta gotorlekuen aztarnetara iritsi. Etxolatik (antena), ibilbideak gailurraren itzulia egiten du ezkerretik, eta ikuspegi zabaleko bidetik jaisten da eskuinera. Beherean, T itxurako bidegurutzean (41 zk. lursaila), ezkerreko bigarren bidexka hartu (gorena); lepo oihantsu batera argiki jaisten da: zuhaitzen azpitik berriz igo zuzen, zut-zuta seinalatua den bidetik 100 m-tan. Ondotik, seinaleek ezker aldera joatea adierazten dute, agerian. Ermite Baita gailurretik iragan (gotorlekua), Larrunen parean jaitsi, eta eskuinera joan hesi baten izkinan. Landa baten aitzinean, ezkerrean kokatutako gailur belartsuan jaitsi 100 m-tan.



4. ZATIA > Santinazioko oihanetan

UTM: 613632 - 4798150. Gotorlekuen tontor-lerroan, hiru bideen elkargunean (250 m), ezkerrera joan Larrunen parean jaisteko, eta ezkerrera hartu gaztainondoan bazterretik. Ateka baten heinean (eskuin), pareko bidexka gordea segitu. Sigi-saga baten ondotik, bidea moztu eta beheerago errepidera heldu. Errepide honetan, 50 m-tan eskuin aldetik ibili eta ezkerrera hartu beste bidexka batean, zut-zuta, jaisten eta gero igotzen dena. D4 errepidean zarelarik, 50 m-tan segitu ezker aldean, eta eskuineko lehen bidea hautatu. Ondotik, hesiaren bazterretik (bide pribatua), ezker segitu.

5. ZATIA > Jauregiberriko bidexka

UTM: 613586 - 4797399. Herrixkaren plazaxoan (195 m), platanoen parean, eskuinera igo etxe handi baten bazterretik, bide belartsu eta zut batetik. Gorago, atekka bat iragan eta landare hesi baten azpitik, bidexkan segitu. Hesian gainera heldu eta, ezkerrera joan bidexka lauan. Erregularitasunean jaisten da, Sararako ikuspegi eder batekin. Borda zaharberri batetik, pareko bide onean segitu.

6. ZATIA > Sarara itzultzea

UTM: 614038 - 4796633. Lepo ttipi baten heinean (165 m), etxe handi baten parean, eskuineko bigarren bidean jaitsi. Beherean, kanadar pasabidearen ondotik (Aldunberria bidegurutzea), Basaburua auzora jaisten den pareko bidea segitu, Sarako itzulia egiten duen errepidera iritsi arte (D406). Zuhurki zeharkatu bereizketa gunerantz, karabanendako aparkalekuaren ezkerretik ibili 50 m-tan, eta oinezko karrika eskuin, hiri-barne alderantz. Igerilekua eta pilota plazaren bazterretik ibili, eta ezkerrean doan bihurtune bat marraztu, eta gero, eskuinera joan, Sarako plaza nagusia topatu arte.

INTERESGUNEAK

❖ Helbarrengo latsagia (1 km)

Helbarren auzotik ateratzen, izen bereko erreka horniturik, latsagia zoragarri batek tradiziozko eraikuntzaren ezagarrak atxiki ditu: harrizko zutabeak, zurezko zureria, eta, bereziki, Larrungo laua lodiko teiltatu.

UTM: 615267 - 4797478

❖ Sarako ibarrerako ikuspegi (2,6 km)

Zuhalmendiaren oinean, Sara eta Ainhoako ibarrerako ikuspegi ederaz gozatu, Atxuria tontorraren azpian. Duen geografiarengatik, Zugarramurdi auzoko herriarekin batasun bat sortzen duela dirudi, nahiz eta Frantzia eta Espainia arteko mugak bi administrazio-eremutan bereizten duen.

UTM: 615004 - 4798543

❖ Napoleon garaiko gotorlekuak (3,6 km)

Azkaine, Sara edo Senpereko gainaldeetan, muinoak kanpainen garaiko gotorleku militarren aztarnak beteak dira. Hemen, ingurubide-arroila baten itxura geometrikoa ikus daiteke. Gotorleku baten aztarnak dira (XIX. mende hasieran), Frantzia eta Espainia arteko mugaren defentsarako gune zaharra, Ingeles armadaren aitzinean.

UTM: 614582 - 4798555

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Sara, D4 gurutzatzea
UTM: 615106 - 4796768

- Sara, Mendiandoa errepide bazterreko ibilketa.
UTM: 615297 - 4797317

- Bigarren mailako errepidera heltzen den jaitsiera zut-zuta (Santinazio lepotik hurbil)
UTM: 613650 - 4797724

- Santinazio lepoko errepide hertsian 60 m egin
UTM: 613558 - 4797563

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Sara, saltegi eta zerbitzu guziak
UTM: 615135 - 4796518

Sara, igerilekuko aparkalekua, komunak eta ur gunea
UTM: 614931 - 4796450

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gov.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAIN, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.